



## II. ATALA ERRAMUN BAXOKEN OMENEZKO AITORTZAK

>>>

# 4

### UMILTASUNAREN MIRAILA

**Pantxoia Etchegoin**

*Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria*

Helbide elektronikoa: [eke-etchegoin@wanadoo.fr](mailto:eke-etchegoin@wanadoo.fr)

Umiltasuna da, ene ustez, gizonaren kalitate haundienetarikoa.

Umila: hitz hau arras ongi joanki zaio Erramun Bachoc adixkideari, horrelakoa baita. Ixil-ixila lanean eta lanean, mintzatu behar delarik aldiz, beti hor gertakarien araberrako hitz xuxenen atzemaiteko, diskurtsoa ezinago hobeki arrazoinatuz eta ikerlarien gogetetan oinarrituz.

Zenbat aldiz ez ditugu erreferentzia gisa, Txepetx, Fishman, Bourhis edo Vinsonneau bezalako izenak Erramunen ahotik entzun, edozein hizkuntza edo kultura ekimen behar zelarik sostengatu, Euskal kultur erakundean edo beste nonahi? Maiz omere eta arraileria apur batekin!

Bainan soziolinguistikarako jakinduriarekin batera, Erramunek maitate ditur erabilera konkretuak, euskal kulturaz hazten da, eta osagarritasun hori denentzat aberasgarria da.

Gaur egun ere, Euskal Kultur Erakundeko lehendakaritzagoa utzi badu ere, beti gure ondoan daukagu, nola euskararen aholkulari bezala, hala edozein eskukaldiren emaitako, orenak kondatu gabe.

Erakundeburu bezala, bertzeak bertze, kartsuki lan egin du, beti bere tokian egonez baina behar-ordu guzietan hor izanez gure laguntzeko, gure babesteko... egundainokotik egundainokora, ekaitz larrienaren artetik... baikor agertuz.

Hitz labur bezain samurrez, eskertu nahi dut, euskararen eta euskal kulturaren alde egiten duen lan paregabearentzat.

Pizkundearen denboretan ezagutu dut, duela hogeitun urte baino gehiago. Bestalde, zenbat eta zenbat asteburu ez ditugu harekin iragan, *Euskaraz bizi* metodoarentzat esketxen filmatzen, beti xede berarekin: gazteeri euskararen transmisioaren segurtatzea, era modernoan.

Geroztik, zenbat bide ez da urraturik izan, Erramun eta bera bezalakoeri esker, oraino anitz egiteko baldin bada ere, oroz gainera euskara plazara dadin eta behar duen ezagupen ofiziala behin betikoz ardietsi dezan.

Euskal Kultur Erakundeko lehendakaritza utzi zuelarik 2005ean, ohorezko makila bat eskaini genion, non ere erranaldi hauek grabatu bait genizkion:

*“Erramun Bachoc, Euskaldun suharra, langile zilarra, geroan baikorra”.*

Ba ote da Erramunen izaitea hobeki irudikatzen duenik? Ez dut uste.

Milesker oraino Erramun. Atxikimendu osoarekin.■

---

*“Erramun Bachoc,  
Euskaldun suharra,  
langile zilarra, geroan  
baikorra”.*

*Ba ote da Erramunen  
izaitea hobeki irudikatzen  
duenik? Ez dut uste.*